

FAMILIAK, AZL-AK ETA BESTE HEZKUNTZA-ERAGILE BATZUK. DIAGNOSTIKOA

10.4 TRESNA. IKASTETXEAREN DIAGNOSTIKOA.

Irakurri arretaz ondorengo baieztapen guztiak, eta baloratu zure adostasun-maila, 1etik (batere ados ez) 4ra (erabat ados).

HEZKUNTZA AFEKTIBO ETA SEXUALA BERDINTASUNEAN				
20. Hurrei norberaren gorputza ezagutzen eta nesken zein mutilen gorputzaren atalak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun fisikoak naturaltasunez izendatzen laguntzen zaie (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
21. Hurrei ezetz esaten, zer gustatzen zaien eta zer gustatzen ez zaien ezagutzen eta beren eta gainerakoen gorputzaren eskuragarritasunean mugak jartzen laguntzen zaie (haurtzaroko sexu-abusuaren prebentzioa). (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).	1	2	3	4
22. Haurren sexu-hezkuntzan genero-estereotipoak eta LGBTIfobiak kritikoki aztertzen dira.	1	2	3	4
23. Ikastetxean, genero-identitatearekiko eta dibertsitatearekiko errespetua sustatzen da.	1	2	3	4
24. Gorputzen arteko desberdintasunak, gorputzaren zaintza eta pubertaroaurreko eta nerabezaroaurreko aldaketa fisiologikoak aztertzen dira ikasleekin.	1	2	3	4
25. Sexu-orientazio desberdinen errespetua eta ezagutza sustatzen da.	1	2	3	4
26. Harreman afektibo eta sexualetan beharrezkoa den berdintasuna eta tratu onen etika lantzen da ikasleekin.	1	2	3	4
27. Harreman afektibo eta sexualetako indarkeriaren kritika lantzen da ikasleekin.	1	2	3	4
28. Ikasgelan sare sozialen erabilera etikoari buruzko eztabaidak proposatzen dira. Sexu-ziberdelituak: argazkiak eta bideoak zabaltzea eta/edo argitaratzea (sextinga, sextortsioa, groominga eta abar).	1	2	3	4
29. Sexu-orientazioari buruzko eztabaidak proposatzen dira ikasgelan.	1	2	3	4
30. Genero-arrazoiengatiko jazarpena eta ziberjazarpena lantzen dira ikasgelan.	1	2	3	4
31. Ikasleei LGTBI mugimendua agerian jartzen zaie eta errespetu- eta aitopren-jarrerak sustatzen dira.	1	2	3	4
32. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut nire semea edo alaba (edo ikastetxeko ikasleak) berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuarean prestatzen, berdintasunezko identitate bat eraikitzeke bidean aurrera egin ahal izan dadin	1	2	3	4

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN PREBENTZIOA ETA HORREN INGURUKO JARDUNA				
33. Ikasgeletan hezkuntza emozionala lantzen da, genero-ikuspegian oinarrituta (neska edo mutila izateak indartsuagoa edo sentiberagoa izatea esan nahi ez duela erakusten duten ereduak edo egoerak).	1	2	3	4
34. Neskak eta mutilak izateko ereduak berdintasunean eraikitzeke aukera lantzen da ikasgeletan, genero-estereotipoen alternatiba gisa.	1	2	3	4
35. Ikastetxean, feminitate ahaldunduak lantzen dira neskekin.	1	2	3	4
36. Ikastetxean, berdintasunezko maskulinitateak lantzen dira mutilekin (berdintasunezko maskulinitateen ereduak eta adibideak).	1	2	3	4
37. Ikastetxean, emakumeen aurkako indarkeriaren eta desberdintasunaren inguruko enpatia lantzen da (ipuinak, kontakizunak, pasadizoak, rol-jokoak, bideoak eta abar).	1	2	3	4
38. Ikastetxean, harreman afektibo eta sexualetako indarkeriaren kritika lantzen da ikasleekin.	1	2	3	4
39. Ikastetxean, mikromatxismoak, maitasun erromantikoaren mitoak eta abar lantzen dira ikasleekin.	1	2	3	4
40. Ikastetxean, emakumeek hainbat egoeratan (ezkongaialdian, aisian eta abar) jasaten duten indarkeriari buruz eztabaidatzen da.	1	2	3	4
41. Familian (edo nire lanpostuan) laguntzen dut nire semea edo alaba (edo ikastetxeko ikasleak) emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta horren inguruko jardunean hezten, berdintasunezko identitate bat eraikitzeke bidean aurrera egin ahal izan dadin.	1	2	3	4

Talde txikietan, item bakoitzeko erantzunak adosten saiatuko gara. Erantzunak argudiatu ondoren, akordioak lortzen saiatuko gara.

Itemetan lortutako puntuazioak aztertzea eta ondorengo taulan sailkatzea:

IKASTETXEAREN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA		
	Zenbakiak	Arrazoiak
Indarguneak, jardunbide egokiak. (4 puntu lortu dituzten itemak).		
Ahuleziak edo hobetzeko egoerak (puntu 1 edo 2 lortu dituzten itemak).		

Gure ikastetxean detektatutako indarguneak eta ahuleziak ikusi ondoren, hobetu behar diren eta epe laburrean lantzeko aukera gehien eskaintzen dituzten elementuak finkatuko ditugu. Kontuan izan behar dugu indarguneak ere hobetu daitezkeela. Horrela, beraz, hobetzeko premia horiek datozen ikasturteetan lortzeko moduko helburu gisa formulatuko ditugu.

IKASTETXEAREN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA	
HOBETZEKO PREMIAK	LORTU BEHARREKO HELBURUAK